

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

**Proiektua onestea eta hasierako onespena ematea Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen aldaketa bati, zeinaren helburua baita Askartza menpeko toki erakundeko 7.eko lursailak —26-144 katastro-erreferentzia— orain dituen sailkapena eta kalifikazioa haren mugetara doitzea**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko martxoaren 10ean egindako ohiko bilkuran:

1. Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean Askartza menpeko toki erakundeko 7.ean dagoen lursailaren eremuan —26-144 katastro-erreferentzia— xedapen aldaketa bat egiteko proiektua onestea, zeinaren helburua baita orain dituen sailkapena eta kalifikazio xehatua aldatzea lursailaren mugetara doitzeko, aipatutako lursailaren jabe P. y C. E. G., SLUK eskatuta.

2. Hasierako onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean Askartza menpeko toki erakundeko 7.ean dagoen lursailaren eremuan —26-144 katastro-erreferentzia— egin nahi den xedapen aldaketari, zeinaren helburua baita orain dituen sailkapena eta kalifikazio xehatua aldatzea lursailaren mugetara doitzeko, idatzitako proiektuarekin bat etorritik, zeina P. y C. E. G., SLUn jaso baita.

3. Aldakuntzaren inguruko agiriak jendaurrean jartzea eta horren berri ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz ematea, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta hilabeteko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

4. Askartzako Administrazio Batzarrari hasierako onespeneren berri ematea, eta aldaketaren dossier teknikoaren kopia osoa bidaltzea, hogei eguneko epean txostena eman dezan; behin epe hori igaro ondoren erantzunik edo ebazpenik jaso ez bada, izapideak aurrera jarraituko du.

5. Hasierako onespena emateko erabakia P. y C. E. G., SLUri jakinaraztea.

6. Behin betiko onetsi bitartean —edonola ere, gehienez ere bi urtez— bertan behera utziko da edonolako onarpen, baimen eta hirigintza-lizentzia ematea Askartza menpeko toki erakundeko 7.ean dagoen lursailaren eremuan —26-144 katastro-erreferentzia—.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko martxoaren 10ean

*Alkate lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**